BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2526

AGINDUA, 2013ko maiatzaren 9koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Leioandin (Leioa) babes ofizialeko 204 (108+96) etxebizitza esleitzeko prozedurari hasiera ematen diona.

GERTAKARIAK

1.– Babes ofizialeko etxebizitza horiek esleitzeko prozedura Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren bidez dago araututa, hala ezarrita baitago Babes publikoko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko 2008ko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 12. artikuluan (2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa).

2.– Etxebizitzako Bizkaiko lurralde-ordezkariaren 2011ko urriaren 20ko Ebazpenaren bidez, babes ofizialeko behin-behineko kalifikazioa eskuratu du babes ofizialeko 108 etxebizitzako sustapenak, eta, halaber, kalifikazio hori bera eskuratu du, Etxebizitzako Bizkaiko lurralde-ordezkariaren 2011ko urriaren 5eko Ebazpenaren bidez, 96 etxebizitzako sustapenak. Bi sustapen horiek Leioandian kokatuta daude, eta Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, S.A. (Visesa) sozietate publikoak sustatzen ditu, EB2-0380/11-LC-000 eta EB2-0381/11-LC-000 espediente-zenbakiekin, hurrenez hurren. Etxebizitza horietako 9 mugikortasun mugatu iraunkorra duten pertsonentzat egokituta daude: horietatik, zazpi bi logelakoak dira; eta bi hiru logelakoak. Gainerako etxebizitzak honelakoak dira: 80 etxebizitza bi logelakoak dira, eta 115, berriz, hiru logelakoak. Etxebizitzak lagatzeko araubidea azalera-eskubidea izango da.

3.– Etxebizitza horietatik, 3 Leioako Udalarentzat izango dira. Etxebizitzok EB2-0380/11-LC-071, EB2-0380/11-LC-072 eta EB2-0380/11-LC-074 dira, hirurak ere hiru logelakoak.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari dagokio agindu hau ematea, hala xedatuta baitago Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 29. artikuluan, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoan.

2.– Lehen eskualdatzeko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko, bizikidetza-unitatea osatuko duten titularretako batek gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egon beharko du, kasuan kasuko araudian ezarritako gutxieneko antzinatasuna duela, betiere Babes publikoko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko 2008ko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 18. artikuluan jasotzen denarekin bat etorriz.

3.– Babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko eskatuko diren urteko diru-sarrera haztatuen mugak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2011ko irailaren 14ko Aginduan ezarritakoak izango dira.

4.– 39/2008 Dekretuaren 22. artikuluan jasotzen denaren arabera, diru-sarrerei dagokienez kontuan hartu beharreko epealdia honako hau izango da: esleipen-prozedurari hasiera ematen dion aginduaren argitalpen-dataren aurreko zergaldia; betiere, amaituta egon behar du zergaldi

horri dagokion aitorpena egiteko epeak, hau da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena egitekoak.

5.– Lehenago aipaturiko 2012ko urriaren 15eko Aginduak ezartzen duenez, pertsonek edo bizikidetza-unitateek, babes ofizialeko etxebizitzen esleipen-prozeduretan parte hartzeko, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatuta egon beharko dute. Baldintza hori betez gero, parte hartzea izango dute Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatzeko eskaeran adierazitako udalerrietan zein horien eremu funtzionaletan egindako esleitze-prozeduretan, non eta hori eragozten duen arau- edo hitzarmen-xedapenik ematen ez den.

6.– Agindu horretan bertan zehazten denez, prozeduran parte hartzea borondatezko izango da, eta prozedurari hasiera emateko aginduan finkatutako epean eta bitartekoaren bidez egin beharko da. Halaber, prozeduran sartzen direnek beren bizikidetza-unitatearen premietarako egokia ez den etxebizitza bat eskuratzeko interesa ere adierazi ahal izango dute, betiere horrek gainokupazioa eragiten ez badu. Egokitutako etxebizitza bat eskuratzeko interesa ere adierazi ahal izango dute, era horretako etxebizitzak esleitu gabe geldituz gero.

Kasu horretan, epea 10 egun naturalekoa izango da.

7.– Esleitzeko modua aldatu egiten da egoeraren arabera: prozeduran sartutako eskatzaileak sustapeneko etxebizitzak baino gehiago badira, esleipena notarioaren aurreko zozketa publiko bidez egingo da, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 31. artikulutik 41.era bitartean jasotzen den prozedurari jarraituz; aitzitik, etxebizitzak eskatzaileak baino gehiago baldin badira, Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak notario aurrean ordenatuko ditu etxebizitza-eskaerak, eta etxebizitzak 42. artikulutik 44.era bitartean jasotzen den prozedurari jarraituz esleituko ditu.

Horrenbestez, aipatutako legezko manuak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Leioako udalerrian babes ofizialeko 204 (108+96) etxebizitza esleitzeko prozedurari hasiera ematea; udalerri hori Bilbao Metropolitanoko eremu funtzionalean dago. Etxebizitza horietatik, 3 Leioako Udalarentzat izango dira. Etxebizitzok EB2-0380/11-LC-071, EB2-0380/11-LC-072 eta EB2-0380/11-LC-074 dira, hirurak ere hiru logelakoak.

Zozketatik kanpo gelditu diren etxebizitzak eman zaien helbururako behar ez badira, Etxebizitzako lurralde-ordezkariak esleituko ditu. Kasu horretan, esleipendunak aukeratzeko, hautaketa-prozesuko kupo orokorreko itxarote-zerrenda hartuko da kontuan.

Bigarrena.– Sustapen honetako etxebizitzak lagatzeko araubidea azalera-eskubidea izango da.

Hirugarrena.– Esleipen prozeduran honako pertsona edo bizikidetza-unitate hauek parte hartu ahal izango dute: agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan erosketa-araubidean izena emanda daudenek, betiere hurrengo paragrafoetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Laugarrena.– Izena emateko eskabidean aukeratutako udalerrietako bat Leioa izan beharko da.

Bosgarrena.– Etxebizitzaren titular izango diren pertsonetako batek Leioan erroldatuta egon beharko du, prozedurari hasiera emateko agindu hau argitaratzen den eguna baino hiru urte lehenagotik, gutxienez, hala jasotzen baita Sailak eta Leioako Udalak 2009ko urtarrilaren 12an sinatutako hitzarmenean.

Seigarrena.– Egiaztatu beharko da 2011. urteko zergaldiko diru-sarrera haztatuak ez direla 9.000 euro baino txikiagoak, ez eta 39.000 euro baino handiagoak ere. Mugikortasun mugatua

edo desgaitasun psikikoa izanez gero, aski izango da 3.000 euroko gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzea.

Zazpigarrena.– Aipatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonek edo bizikidetza-unitateek sustapen honetako esleipen-prozeduran parte hartu nahi badute, dagokion inprimakia aurkeztu beharko dute Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzan, 2013ko ekainaren 10etik 19ra bitartean (biak barne).

Esleitu gabe geratzen diren etxebizitzak, halakorik baldin bada, Bilbao Metropolitanoko eremu funtzionalean erroldatuta egon eta Leioa intereseko udalerri gisa eskatuta duten pertsona edo bizikidetza-unitateen artean esleituko dira, Pertsona edo bizikidetza-unitate horiek horretarako ezarrita dauden baldintzak bete beharko dituzte eta esleipen-prozeduran parte hartzeko interesa adierazi. Horretarako, ezarriko den epean, dagokion inprimakia aurkeztu beharko dute Bizkaiko Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzan.

Zortzigarrena.– Sustapeneko etxebizitzetatik 9 mugikortasun mugatu iraunkorra duten pertsonentzat egokituta daude. Horietatik, zazpi bi logelakoak dira, eta beste biak, berriz, hiru logelakoak. Etxebizitzok, hasiera batean, mugikortasun mugatu iraunkorra duen pertsona bat duten bizikidetza-unitateen artean esleituko dira.

Etxebizitza horiek hurrenkera honi jarraituz esleituko dira: lehenik eta behin, egokitutako etxebizitzak gurpil-aulkian dauden pertsonei esleituko zaizkie; gero, bi makulu nahitaez erabili beharra duten pertsonei; eta, azkenik, 1971/1999 Errege Dekretuaren 3. eranskinaren D) eta H) bitarteko paragrafoekin lotuta 7 puntu edo gehiago dituztenei.

Esleitu gabe geratzen diren etxebizitza egokituak, halakorik baldin bada, mugikortasun mugatu iraunkorra duen pertsonarik ez duten bizikidetza-unitateen artean esleituko dira, baldin eta egokitutako etxebizitza bat eskuratzeko interesa adierazia badute.

Bederatzigarrena.– Egokitu gabeko 195 etxebizitzetatik, hiru, hiru logelakoak, Udalarentzat izango dira. Gainontzeko etxebizitzetatik, 80 bi logelakoak dira, eta 112 hiru logelakoak.

Hamargarrena.– Eskatzaileak gehiago baldin badira sustapeneko etxebizitzak baino, esleipena notarioaren aurreko zozketa bidez egingo da, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 31. artikulutik 41.era bitartean jasotzen den prozeduraren arabera.

Etxebizitza-kopurua eskatzaileena baino handiagoa bada, Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak notario aurrean ordenatuko ditu etxebizitza-eskaerak, eta agindu horretako 42. artikulutik 44.era bitartean jasotzen den prozeduraren arabera esleituko ditu etxebizitzak.

Hamaikagarrena.– Onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak, etxebizitza-esleipenak eta itxarote-zerrendak honako toki hauetan argitaratuko dira: Zuzenean-Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Zerbitzuaren iragarki-oholetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-ohol elektronikoan.

Agindu honen aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, zuzenean, bi hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan. Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da errekurtso biak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 9a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.